



EPE 2025 Bigarren Hezkuntza

Informazio-oharra, ebaluazio- eta kalifikazio-tresnei buruzkoa

Informazio-, orientazio- eta gardentasun-helburuetarako soilik, prozedura hauetan hautaketa-organismoek oinarritzko **erreferentzia komun gisa** erabiliko dituzten ebaluazio- eta kalifikazio-tresnak ezagutarazten dira (errubriken eta kalifikazio-orrien oinarritzko eredu bateratuak), betiere deialdi-aginduan bertan ezarritako oposizio-faseko probak baloratzeko irizpideei helduz (VI. eranskina).

Hauei dagokienez, gogorarazi beharra dago, hala ere, espezialitate bakoitzeko **Hautaketa-Batzordeari zein Epaimahaiari badagokiela soilik** (Hezkuntzako sailburuaren 2025eko otsailaren 24ko Agindua, 2025/03/06ko EHAA: 5.6. oinarria), kasuz kasu, **beharrezko xehetasunak eta egokitzapenak egiteko eta onartzeko lege-eskumena**, batez ere, zozketaren ondoriozko azterketa-gaien eta hautaketa-organo horiek espezialitate bakoitzerako proposaturiko proba praktikoko zehatzaren edukien eta ezaugarrien arabera, bai eta errubriketako atal nahiz azpiatal bakoitzari emango zaion puntuazioa finkatzea ere.

Era berean, nabarmentzen da **erabili beharreko kontzeptuak eta terminologia** kasu konkretu bakoitzean indarrean dauden erreferentziazko curriculumaren lege-marko ezberdinen arabera ulertu, egokitu eta adierazi behar direla hezkuntza-espezialitate, -irakaskuntza eta -etapa bakoitzerako.

Gasteizen, 2025eko ekainaren 26ean